

Debate

La primera persona en participar es Javier Iriarte quien proviene de un pueblo de menos de 1.000 habitantes donde hubo 52 asesinatos. En la ley 24/2003 se obligaba a retirar los símbolos franquistas en el plazo de un año, algo que no se ha cumplido ya que afirma que aún quedan más de 365 símbolos por todo Navarra. Expone que en Ibero hay colocada en la iglesia una lápida dedicada a los caídos, es la misma iglesia donde se confesaron muchos de los hombres conocidos como “los de la fosa de Ibero”. Afirma que en las principales asociaciones dedicadas a la memoria histórica en los últimos tiempos han dimitido las personas consideradas históricas. Cree que gran parte de la culpa es de la política. Opina que no cuesta nada colocar placas o monolitos, para esta acción no es necesaria una ley “se ponen sin más”. Resalta que ningún monolito lo ha promovido el Gobierno “es muy fuerte”. Además, por problemas políticos no se realiza el mantenimiento adecuado y algunos llevan tiempo tirados. Entiende que alguien debería hacer algo.

Teileriako Ahaztuak expone que en Monreal existe un monolito que fue atacado y que es un caso que lleva 14 meses enquistado porque no se abre expediente para decidir qué hacer con él. Solicita que los procedimientos se agilicen.

Desde el Ayuntamiento de Bera se refiere que tuvieron conocimiento del proyecto de ley a través de la prensa y se sorprendieron de que se citaran lugares concretos como lugares de memoria histórica. En Bera, afirman, también existen lugares emblemáticos como la Cantera o los 130 búnkeres construidos por esclavos. Presentan la web del Ayuntamiento en la que se ha abierto una sección de memoria. Plantean que el Ayuntamiento de Bera está por la labor de trabajar en lugares de memoria histórica pero la ayuda es necesaria. Piden que no se olvide al norte.

El Ayuntamiento de Tudela está retirando la simbología franquista por acuerdo del Pleno, afirma que no sabe cómo se habría actuado si se hubiera tenido que aplicar la ley. Por otra parte, se está haciendo el Plan General de Ordenación Urbana y se han solicitado 12 millones de euros para rehabilitar un edificio con el fin de que se convierta en Casa de Cultura. Ese edificio sirvió como cárcel y centro de torturas. Se pregunta qué se debería hacer desde el Ayuntamiento, si sería conveniente pedir que se catalogue ya que no quieren tener que deshacer el proyecto una vez puesto en marcha.

Cristina Zoco Zabala opina que hay que objetivar qué lugares tenemos y declararlos lugares de memoria histórica. Tener una ley significa que se pueden realizar acciones y que hay obligaciones independientemente de quién esté en el Gobierno. La ley es un instrumento para formar e informar.

Carlos Otxoa Barricarte de la Coordinadora Amapola del Camino, afirma que tenemos el problema de no sumarnos bien a la realidad. Cree que hay que hacer crítica en todo momento, independientemente de quién esté en el Gobierno. Admite que la voluntad del Gobierno actual es importante para darle un impulso a la ley. Afirma que se critican los ritmos de la Administración por lentos, él es más partidario de evitar lo peor aunque no se pueda obtener lo mejor. Con la ley se asegura la protección de estos lugares. Con los recientes ataques a monolitos, la desaparición de placas... ha habido gente que ha llegado a la conclusión, errónea a su parecer, de que no merece la pena denunciar. Cree que hay más casos de los que se conocen porque no se denuncian. Esto genera que no exista confianza ciudadana en la justicia. En su opinión, si estos ataques se dieran a monumentos de otro signo se resolverían de otra manera. Propone que las instituciones, además de tener la obligación de reparar físicamente los monumentos, se personen para denunciar los casos en los juzgados.

Cristina Zoco Zabala responde que ya existen procedimientos para llevarlo a cabo. Afirma que el problema son las pruebas para demostrarlo. No cree que haga falta incluirlo en la ley porque ya se puede hacer. Recalca que se necesitan pruebas para denunciarlo.

El Alcalde de Tafalla afirma que independientemente de que no se sepa quién fue, se puede denunciar, para iniciar una investigación y que el Gobierno tenga que actuar de oficio.

Jordi Guixé Coromines manifiesta que la socialización de los lugares es muy importante y relata una anécdota: En un lugar de Cataluña considerado conflictivo se abrió un refugio antiaéreo como lugar de memoria histórica. Lo primero que se planteó fue el riesgo de vandalización. El responsable del refugio citó a los capos gitanos y les contó la historia del lugar. Al finalizar la visita le dijeron “tú no te preocupes que esto no lo va a tocar nadie.” La conclusión que obtiene es que es muy importante explicar las cosas.

Se propone hacer visitas a lugares de memoria histórica con policía y Guardia Civil para sensibilizarles y se asegura que en Alemania ya es obligatorio.

Desde Txinparta se afirma que el monolito que ha sido más veces atacado en Navarra es el de la subida al fuerte de San Cristóbal. Cuentan lo que ocurrió en una de las ocasiones en las que se denunció a la Guardia Civil que, según afirman, hizo una investigación modélica. Se denunció en el Juzgado de Pamplona pero este se inhibió. El caso pasó a la Audiencia Nacional que no lo consideró importante. Posteriormente, el Tribunal Superior de Justicia obligó a la Audiencia Nacional a juzgar el caso por terrorismo. El juez Grande Marlaska dictaminó que no era algo grave y las penas

fueron mínimas. “Se les trata con guante blanco”. Quienes lo hicieron son un grupo al que tiene controlado la Guardia Civil, pero no se toman medidas. Pasan a relatar lo que ocurre en Pamplona. Se pone el caso de la antigua cárcel que se tiró en un tiempo récord, Salesianos (que fue cuartel de la Falange) donde nadie se plantea no construir las torres, Escolapios que entre 1936-1939 fue cuartel general de Carlistas y de ahí se llevaba a fusilar a los detenidos. El Fuerte de San Cristóbal es propiedad del ejército y en su opinión no les sirve para nada. Plantean que el Fuerte tiene que pasar a ser propiedad del Gobierno de Navarra y que hay que recuperar el cementerio de las botellas, señalizarlo lo antes posible.

Javier Giráldez Díaz comienza citando una frase de la novela HHHH (acrónimo de «Himmlers Hirn heißt Heydrich», en alemán «el cerebro de Himmler se llama Heydrich», novela de Laurent Binet): “La memoria carece de utilidad para aquellos a quienes honra, pero sirve de mucho a quien se sirve de ella. Con ella me construyo, y con ella me consuelo”. Considera que los lugares de memoria histórica simbolizan mucho. Cree que en ocasiones se hace poca autocrítica y los actos por la memoria histórica acaban convirtiéndose en actos partidistas. Aboga por dejar de lado la lucha partidista para que lo que quede de la memoria sea la verdad. No quiere entrar a criticar al Gobierno de Navarra porque es una de las pocas Comunidades que están dedicando recursos a este tema, hay una voluntad. Afirma que hay que hacer un esfuerzo en definir qué se recoge como lugar de memoria. Cree que tienen que ser espacios de consenso social, de encuentro de los demócratas.

Félix Esparza Fernández de Psicología sin fronteras afirma que acudió a conocer la realidad del memorial de Cataluña y se quedó asombrado de la magnitud del proyecto. Cree que hay que hacer más cosas. Opina que la realidad de la Memoria Histórica en España es singular porque fue una guerra entre amigos, familias y por este motivo la fractura social es muy profunda y por eso le ha sorprendido el después del proyecto que ha comentado Jordi en su exposición. En su opinión hay que aprovechar el impulso que se le está dando a este tema desde el Gobierno pero cree que aunque este impulso llegue un día que se acabe, serán las asociaciones las que lo retomem como han venido haciendo hasta el momento. Afirma que cuesta mucho ir en contra de la apología del franquismo en la sociedad de hoy, podemos tener prisa pero la Administración tiene sus ritmos.

Jordi Guixé Coromines relata que en Cataluña se quiere hacer un estudio sobre qué es lo que se mantiene del gran proyecto que se puso en marcha hace unos años.

Javier Giráldez Díaz afirma que existe una profunda asimetría entre la ciudadanía de un lugar y de otro en cuanto al trato que se da a la víctimas de la Guerra Civil y la represión. Existen muchas Comunidades Autónomas en las que están desamparadas.

Se presenta la duda sobre si realizar o no denuncias. Se habla del grupo que ha realizado ataques a monolitos de Navarra y se afirma que estas personas estuvieron en las piscinas de los militares y que en esa reunión se habló de darles o no armas. Se asegura que esto ha salido en la prensa. Según esta opinión no existe justicia, ni verdad, ni reparación.

Fernando Mendiola del fondo documental UPNA expone que una de las claves para la promoción de los lugares de memoria es la posibilidad de que haya una señalización, incluso un uso turístico no en clave de mercantilización. Lanza una pregunta a la mesa sobre experiencias europeas, para ver en el planteamiento de la ley qué líneas rojas pueden darse.

Jordi Guixé Coromines habla del turismo espontáneo, muy vinculado al 11s, considera que la evolución de los procesos memoriales es compleja. Afirma que si se llama “La fuga” a una carrera estás faltando al respeto a tu propia memoria. La reconciliación y el consenso no son necesarios si existe conciencia democrática. Se pregunta si habría que incluir la banalización de la memoria en la Ley. Cree que deberían hacerlo profesionales. En su opinión hay que profesionalizar el funcionariado y los grupos de trabajo que tienen relación con estudios de memoria para mejorar la creación de espacios y no frivolar.

Hablando de su experiencia en Cataluña, de la señalización y caminos, lo más económico se ha destruido un 60%, los centros previstos no se ha terminado ninguno, los que ya estaban se han quedado, podríamos decir un 50% siendo amables, y el espacio memorial emblemático de la propia ley del memorial democrático en Barcelona no existe, tienen un espacio de alquiler. No hay voluntad de buscar un espacio de memoria real y emblemático para hacer lo que la Ley promulgaba. La Ley catalana creaba el instrumento para desarrollar las políticas públicas de memoria, este instrumento era un espacio emblemático, un memorial, etc. Los instrumentos son estos instrumentos de memoria.

Eztabaida

Lehenengo parte-hartzailea Javier Iriarte da, 1000 biztanle baino gutxiago dituen herri batetik dator, bertan 52 hilketak gertatu zirela. 24/2003 Legeak ikur frankistak urte baten epean kentzera behartzen zuen, bete ez den zerbait, pertsona honek Nafarroa osoan oraindik ere 365 ikur daudela adierazten baitu. Azaltzen du Iberoko elizan erorien aldeko oroitarri bat dagoela, eliza horretan bertan “Iberoko hobikoak” bezala ezagutzen diren gizon asko aitortu direlarik. Aditzera ematen du azken garaiotan memoria historikoaren arloan diharduten elkarte garrantzitsuenetan “historikotzat” jotzen diren pertsona askok beraien karguak utzi dituztela. Neurri handi batean politikaren erruagatik dela uste du. Bere ustez plakak eta monolitoak jartzea ez du ezer kostatzen, horretarako ez da inolako legerik behar eta “besterik gabe” jartzen dira. Nabarmetzen Gobernuak ez duela monolito bakar bat ere sustatu, eta uste du hori “oso gogorra dela”. Gainera arazo politikoengatik ez dira beharrezko zaintze-lanik egiten eta batzuk denbora asko daramate hondatuta. Ulertzen du norbaitek zerbait egin beharko lukeela.

Teileriako Ahaztuak elkarteak azaltzen du Elon erasota izan zen monolito bat dagoela, eta auzia 14 hilabete geldituta daramala berarekin zer egiten den erabakitzeko inolako auzibiderik ireki ez delako. Prozedurak azkartzeko eskatzen du.

Berako Udaletxetik adierazten da lege proiektua egunkariengatik ezagutu zutela eta harrিতuta gelditu zirela memoria historikoko tokiak bezala leku zehatzak aipatzen zirela ikustean. Beran ere leku enblematikoak ere badaudela azaltzen dute, hala nola, Harrobia eta esklaboak eraikitako 130 bunkerrak. Udaletxeko web orria aurkezten dute, bertan memoria historikoari buruzko atal bat ireki dela nabarmenduz. Planteatzen dute Berako Udaletxea ere memoria historikoko tokien alde lan egiteko prest dagoela, baina laguntza beharrezkoa dela. Nafarroako iparraldea baztertuta ez izateko eskatzen du.

Tuterako Udaletxea sinbologia frankista kentzen ari da Osoko bilkuraren akordioarengatik, eta adierazten du ez dakiela zer egingo zuen legea aplikatu izan behar bazen. Bestalde, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra burutzen ari da eta 12 milioi eskatu dira eraikin bat berritzeko eta Kultur Etxea bihurtzeko. Eraikin hori kartzela eta torturarako egoitza izan zen. Bere buruari galdetzen dio Udaletxetik zer egin beharko lukeen, memoria historikoko tokia bezala katalogatzea komenigarria ote den, proiektua abiatu eta gero ez luketelako gelditu nahi.

Cristina Zoco Zabalaren ustez dauden lekuak objektibatu behar dira eta memoria historikoko tokiak deklaratu. Lege bat edukitzeak esan nahi du ekintzak burutu ahal direla eta betebeharrak daudela, Gobernuan nor dagoen gorabehera. Legea hezteko eta informatzeko tresna da.

Bideko Mitxingorria elkarteko Carlos Otxoa Barricarteren aburuz arazo bat daukagu: ez gara errealitatera ondo moldatzen. Uste du kritika momentu orotan egin behar dela, Gobernuan nor dagoen gorabehera. Onartzen du egungo Gobernuaren borondatea garrantzitsua dela legea bultzatzeko. Adierazten du Administrazioaren urratsak kritikatzeko direla motelegiak direlako, baina bera txarrena saihestearen aldekoa da, nahiz eta hoberena ez lortu. Legearekin toki hauen babesa ziurtatzen da. Monolitoen aurkako azken erasoen eta plaken desagerpenen ondoren batzuek uste izan dute ez duela merezi gertaera hauek salatzea, baina bere ustez hori akats bat da. Uste du kasu gehiago daudela baina ez direla ezagutzen salatzen ez direlako. Horrek justiziariekiko mesfidantza sortzen du. Bere aburuz, eraso hauek beste motako monumentuen aurka izango balira beste era batez konponduko lirateke. Erakundeak monumentuak fisikoki konpontzeaz gain, gertaera horiek epaitegietan salatzea ere joan daitezela proposatzen du.

Cristina Zoco Zabalak erantzuten dio horrelakorik egiteko bideak badaudela dagoeneko. Azaltzen du arazoa dela gertaera horiek frogatzeko frogak aurkitzea. Ez du uste beharrezkoa denik aukera hori legean sartzea, jada posiblea baita horrelakorik egitea.

Tafallako Alkateak adierazten du salatu ahal dela nor izan den ez jakin arren, ikerketa bat hasteko eta Gobernuak ofizioz jardun dezan.

Jordi Guixé Corominesek adierazten du tokien sozializazioa oso garrantzitsua dela eta anekdota bat kontatzen du: gatazkatsutzat jotzen den Kataluniako leku batean aire-erasoentzako babesleku bat memoria historikoko tokia deklaratu zuten. Planteatu zen lehenengo gauza bandalismoaren arriskua zen. Babeslekuaren arduraduna ijitoen buruzagiekin bildu zen eta lekuaren historia kontatu zien. Bisitaren bukaeran haiek esan zioten: "Ez kezkatu, hau ez du inork ukituko". Horretatik ateratzen duen ondorioa gauzak azaltzea oso garrantzitsua dela da.

Proposatzen da Polizia eta Guardia Zibilararekin memoria historikoko tokietara bisitak egitea, hauek sentikor bihurtzeko, eta ziurtatzen da Alemanian jada derrigorrezkoa dela.

Txinpartatik adierazten da Nafarroan gehien eraso duten monolitoa Ezkabako gotorlekurako igoeran dagoena dela. Kontatzen dute zer gertatu zen eraso horietako bat Guardia Zibilaren aurrean salatzean; bide batez, azken honek ereduazko ikerketa bat egin zuela adierazten dute. Iruñeko Epaitegian salaketa bat jarri zuten, baina honek inhibititu egin zen. Auzia Auzitegi Nazionalera pasatu zen eta han garrantzi gutxikotzat jo zuten. Gero Justizia-azitegi Nagusiak auzia terrorismo kasu bat bezala epaitzera behartu zuen Auzitegi Nazionala. Bertan Grande Marlaska epaileak garrantzitsua ez

zela ebatzi zuen eta zigor baxuenak ezarri zizkien egileei. “Tentu handiz tratatzen dituzte.” Erasoa burutu zuen taldea kontrolatuta dauka Guardia zibilak, baina ez dira inolako neurririk hartzen. Ondoren Iruñean gertatzen dena kontatzen dute. Kartzela zaharra errekorrezko denboran bota izanaren adibidea jartzen dute. Gero Salestarren eskolari buruz mintzatzen dira, Falangearen kuartela izan zena, eta baita ere Eskolapioen eskolari buruz, Karlisten kuartel nagusia izan baitzen eta han atxilotuak fusilatzen eramaten zituztelako. Ezkabako gotorlekuaren jabea armada da eta beraien iritziz ez zaie ezertarako balio. Gotorlekua Nafarroako Gobernuaren jabetza izatera pasatu behar dela eta Botilen hilerria lehenbailehen seinaleztatzeko berreskuratu behar dela planteatzen dute.

Javier Giráldez Díazek eleberri baten esaldi batekin hasten da (HHhH, <<Himmlers Him heißt Heydrich>>; alemanez “Himmlerren burmuinak Heydrich dauka izena”, Laurent Bineten eleberri bat): “Ohoratzen dituenenentzat memoriak ez du ezertarako balio, baina berataz baliatzen direnentzat balio handikoa da. Berarekin eraikitzen naiz eta kontsolatzen naiz.” Memoria historikoko tokiek asko sinbolizatzen dutela uste du. Bere aburuz autokritika gutxi egiten da batzuetan, eta memoria historikoaren aldeko ekimenak ekimen alderdikoiak bihurtzen dira. Borroka alderdikoiak baztertzearen alde agertzen da, memoriatik gelditzen dena egia izan dadin. Ez du Nafarroako Gobernuak kritikatu nahi, gaiari heltzen dioen erkidego bakarretako bat delako, badago borondatea. Memoria gunea bezala zer jasotzen den zehazteko ahalegin bat egin behar dela gehitzen du. Kontsentsu sozialerako guneak izan behar direla uste du, demokraten topagune bat.

Mugarik gabeko psikologiaren Félix Esparza Fernándezek dio Kataluniara joan zela memoriaren errealitatea ezagutzera eta proiektuaren garrantziarekin harrিতuta gelditu zela. Uste du gauza gehiago egin behar direla. Bere iritziz Memoria Historikoa berezia da Espainian, gerra lagunen eta familien artean izan zelako, hori dela eta haustura soziala oso sakona da, eta horregatik hain zuzen ere, Jordik azaldutako proiektuarekin guztiz harrিতuta geratu da. Uste du Gobernuak gaiari ematen dion bultzada baliatu behar dela, baina uste du egun batean bultzada hori bukatzen bada, elkarteek berreskuratuko dutela, orain arte egin duten bezala. Gaurko gizartean frankismoaren apologiaren aurka aritzea asko kostatzen duela adierazten du, presaka ibili gaitzeko, baina Administrazioak bere erritmuak dauzka.

Jordi Guixé Corominesek kontatzen du Katalunian ikerketa bat egin nahi dutela duela urte batzuk abian jarri zen proiektu handitik zer mantentzen den ikusteko.

Javier Giráldez Díazek azaltzen du leku baten edo bestearen biztanleen artean ezberdintasun handi bat dagoela errepresioaren eta Gerra zibilaren biktimei ematen zaien tratamenduari dagokionez. Erkidego Autonomo askotan biktimek ez dute inolako babesik.

Salatzea edo ez salatzearen zalantza agertzen da. Nafarroako monolitoen aurkako erasoak burutu duen taldeari buruz hitz egiten da, eta ziurtatzen da pertsona horiek militarren igerilekuetan egon zirela, eta bilera hartan taldeari armak emateari buruz hitz egin zela. Hori guztia egunkarietan atera dela ziurtatzen da. Iritzi horren arabera ez dago ez justiziarik, ez egiarik ezta ordainik ere.

NUPeko Dokumentazio Fondoko Fernando Mendiolak azaltzen du memoria guneen sustapenerako gakoetako bat seinaleak jartzearen aukera dela, eta horien erabilera egitea, are turistikoa ere, baina ez etekinak ateratzeko helburuarekin. Galdera bat egiten die mahaikoei Europako esperientziei buruz, legearen planteamenduan ze marra gorriak dauden ikusteko.

Jordi Guixé Corominesek bat-bateko turismoari buruz hitz egiten du, irailaren 11ra oso lotua dagoen turismoa, uste du memoria prozesuen eboluzioa oso konplexua dela. Bere aburuz, Lasterketa bati “Ihesaldia” deitzea, norberaren memoria historikoari begirunea galtzea da. Adiskidetzea eta kontsentsua ez dira beharrezkoak kontzientzia demokratikoa baldin badago. Legean memoriaren hutsaltze sartu behar ote den galdetzen dio bere buruari. Bere ustez hori profesionalak egin beharko lukete. Uste du memoria historikoarekin zerikusirik dauzkaten funtzionarioak eta lantaldeak profesionalizatu behar direla, memoria guneen sorrera hobetzeko eta hutsalderietan ez aritzeko.

Bere Kataluniazko esperientziari dagokionez, seinaleen %60a hondatuta daude, ez da aurreikusitako zentroen bat ere bukatu, jada eraikita zeudenak bertan geratu dira eta Bartzelonako memorial demokratikoaren legeko gunea ez du ere existitzen, alokatutako gune bat daukate. Ez dago legeak promulgatzen duena egiteko benetako memoria gune erreal eta enblematiko bat bilatzeko borondaterik. Kataluniar legeak memoriari buruzko politika publikoak garatzeko tresna sortzen zuen, tresna hau gune enblematiko bat zen, memorial bat, adibidez.

Propuestas

- Se propone dejar de lado la lucha partidista para que lo que quede de la memoria sea la verdad.
- Hay que hacer un esfuerzo en definir qué se recoge como lugar de memoria. Estos espacios tienen que ser de consenso social, de encuentro de demócratas.
- Además de tener la obligación de reparar físicamente los monumentos, se considera que el Gobierno de Navarra debería personarse para denunciar los casos en los juzgados, actuar de oficio.
- Uso turístico de los lugares de memoria histórica para difundir y formar pero sin caer en la mercantilización.
- Profesionalizar el funcionariado y los grupos de trabajo que tienen relación con estudios de memoria para mejorar la creación de espacios y no frivolar.
- Se pide que la lista de lugares de memoria no olvide ninguno de los espacios existentes en Navarra.
- Se plantea que el Fuerte de San Cristóbal tiene que pasar a ser propiedad del Gobierno de Navarra.
- Se propone recuperar el cementerio de las botellas y señalizarlo lo antes posible.

Proposamenak

- Borroka alderdikoia baztertzea proposatzen da, memoriatik gelditzen dena egia izan dadin.
- Ahalegin bat egin behar da memoria gunea bezala zer jasotzen den zehazteko.
- Gune hauek kontsentsu sozialerako guneak izan behar dira, demokraten topaguneak.
- Monumentuak fisikoki erreparatzera behartuta egoteaz gain, Nafarroako gobernuak epaitegietara ere jo beharko luke erasoak salatzera, ofizioz jarduten.
- Memoria historikoko tokien erabilera turistikoa, informazioa zabaltzeko eta hezteko erabili, baina etekinik atera gabe.
- Memoriaren ikasketekin zerikusirik duten funtzionarioak et lan taldeak profesionalizatzea memoria guneen sorrera hobetzeko eta hutsalderietan ez aritzeko.
- Memoria historikoko tokien zerrendak Nafarroan existitzen diren gune guztiak jaso dezala eskatzen da.
- Ezkabako Gotorlekua Nafarroako Gobernuaren jabetza izatera pasatzea proposatzen da.
- Botilen hilerria berreskuratzea eta lehenbailehen seinalezatzea proposatzen da.